

# ARMAGINTZAREN MUSEOA. MEMORIA (2012).

## 0. 2012KO EGUTEGIA.

### 1. BISITAK.

- a) Museoak izan dituen bisitariak.
- b) Bisita gidatuak.
- c) Webgunearen bisitak 2012an.
- d) Egin diren kontsultak armen eta Eibarko industria-ondarearen gainean.

### 2. JARDUERAK.

- a) Erakusketak eta argitalpenak.
  1. Argitalpenak.
  2. Erakusketa iraunkorra berriztatzea.
  3. Aldi baterako erakusketa.
- b) Hezkuntza eta kultura-ekintza: Programak eta material didaktikoak garatzea, hitzaldiak/jardunaldiak, webgunea sortzea edo garatzea...
  1. Webgunearen eguneratzeak.
  2. Heziketa programa.
    - Bisita gidatuak.
    - Museoen Nazioarteko Eguna.
    - "Santabarbara Eguna".
  3. "Eibar Industrialia."
- c) Dokumentazioa: Funtsak inbentariatu, katalogatu eta digitalizatu EMSIME sisteman.
  1. Museoko funtsen sailkapena eta katalogazioa.
- d) Kontserbazio- eta zaharberritze-lanak.
- e) Funtsen kudeaketa.
- f) Publizitatea eta propaganda.
  - Irrati-kanpaina.
  - Irrati-kanpaina (Radio Popular) Eibar- Athletic Bilbao partidak, 2012-11-1- Athletic Bilbao-Eibar.
  - Hoteletan egindako kanpaina, Infocard.
  - Nego bide enpresarien zirkulua
- g) Segurtasuneko instalazioak mantentzea.
- i) Diru-sarreraren eta gastuen balantzea.

## 0. 2012ko EGUTEGIA.

### 2012ko EGUTEGIA

#### URTARRILA

						1			1	2	3	4	5				1	2	3	4
2	3	4	5	6	7	8	6	7	8	9	10	11	12	5	6	7	8	9	10	11
9	10	11	12	13	14	15	13	14	15	16	17	18	19	12	13	14	15	16	17	18
16	17	18	19	20	21	22	20	21	22	23	24	25	26	19	20	21	22	23	24	25
23	24	25	26	27	28	29	27	28	29					26	27	28	29	30	31	
30	31																			

#### OTSAILA

#### MARTXOA

#### APIRILA

#### MAIATZA

#### EKAINA

						1		1	2	3	4	5	6					1	2	3
2	3	4	5	6	7	8	7	8	9	10	11	12	13	4	5	6	7	8	9	10
9	10	11	12	13	14	15	14	15	16	17	18	19	20	11	12	13	14	15	16	17
16	17	18	19	20	21	22	21	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24
23	24	25	26	27	28	29	28	29	30	31				25	26	27	28	29	30	
30																				

#### UZTAILA

#### ABUZTUA

#### IRAILA

						1			1	2	3	4	5						1	2
2	3	4	5	6	7	8	6	7	8	9	10	11	12	3	4	5	6	7	8	9
9	10	11	12	13	14	15	13	14	15	16	17	18	19	10	11	12	13	14	15	16
16	17	18	19	20	21	22	20	21	22	23	24	25	26	17	18	19	20	21	22	23
23	24	25	26	27	28	29	27	28	29	30	31			24	25	26	27	28	29	30
30	31																			

#### URRIA

#### AZAROA

#### ABENDUA

1	2	3	4	5	6	7				1	2	3	4						1	2
8	9	10	11	12	13	14	5	6	7	8	9	10	11	3	4	5	6	7	8	9
15	16	17	18	19	20	21	12	13	14	15	16	17	18	10	11	12	13	14	15	16
22	23	24	25	26	27	28	19	20	21	22	23	24	25	17	18	19	20	21	22	23
29	30	31					26	27	28	29	30			24	25	26	27	28	29	30
														31						

	Museoa itxita		Irekita :4 ordu
	Irekita : 3 ordu		Irekita 3:30 ordu

#### Ordutegia:

Asteazketik larunbatera: 16:00-20:00 h.

Domeketan: 10:00-13:00 h.

Abuztuan, asteartetik ostiralera: 10:00-13:30 h.

Ekainaren 25etik irailaren 25era, asteburuetan itxita.

Urtarrilaren 18an, Museoaren atea aurreneko aldiz zabaldu zirela bost urte igaro direla eta egun hura ospatzearen, sarrera doan izan zen. Museoen Nazioarteko Egunean ere bai, maiatzaren 18an. Abenduaren 4an, Santa Barbara egunean, museoaren sarrera doakoa izan zen.

## 1. BISITAK

### a) Bisitariak museoan

2012 urte	Bisitari	G	E	U	IKASL EAK	IKAS LE	JUBILA tuak	INBESTI GATZAILE AK	GIADA TUAK	ENPR	BISITA KULTUR ALAK
Urtarrila	450	120	133	197	201	10	9	0	13	3	105
Otsaila	269	90	27	12	136	4	20	2	0	0	91
Martzoa	271	113	86	72	136	13	9	2	7	0	62
Apirila	121	75	40	6	0	1	21	1	39	3	50
Maiatza	315	149	123	43	41	4	20	4	29	85	66
Ekaina	183	103	72	8	0	2	61	9	24	3	28
Uztaila	141	42	50	49	36	4	2	4	61	3	41
Abuztua	96	42	41	13	4	0	39	1	2	0	28
Iraila	135	79	52	4	0	0	0	0	43	0	54
Urria	123	64	51	8	0	1	7	0	40	0	51
Azaroa	478	254	179	45	0	0	50	0	0	2	192
Abendua	244	135	78	31	0	0	5	2	5	30	76
<b>guztira</b>	<b>2686</b>	<b>1266</b>	<b>932</b>	<b>488</b>	<b>554</b>	<b>39</b>	<b>243</b>	<b>25</b>	<b>263</b>	<b>130</b>	<b>844</b>


urtea	Bisitari guztiak	Irekia egon den egunak	Eguneko batz bestekoa
2007	5.221	275	18,98
2008	2.035	279	7,29
2009	4.360	274	15,91
2010	3980	229	17,37
2011	3549	226	15,70
2012	2686	218	12,32
<b>Guztira</b>	<b>21.831</b>	<b>1501</b>	<b>14,54</b>

### b) Bisita giadatuak

urtea	Bisita gidatuen kopurua
2007	36
2008	47
2009	43
2010	60
2011	41
2012	67
<b>Guztira</b>	<b>294</b>

### c) Webgunearen bisitak 2012an.

#### Eboluzio-grafikoa:



2012 urtea	Orrialdearen karga. (1)	Bisitari bakarrak (2)	Lehenengo aldiz egiten diren bisitak (3)	Bisita errepikariak (4)
Urtarrila	29,161	7,314	6,671	643
Otsaila	22,265	5,905	5,345	560
Martxoa	27,425	7,174	6,524	650
Apirila	25,155	6,800	6,144	656
Maiatza	23,605	6,823	6,129	694
Ekaina	22,042	6,278	5,662	616
Uztaila	22,063	6,409	5,763	646
Abuztua	22,277	6,789	6,290	499
Iraila	23,051	7,188	6,406	782
Urria	24,442	7,006	6,335	671
Azaroa	29,190	7,605	6,919	686
Abendua	26,619	7,020	6,418	602
Guztira	297,295	82,311	74,606	7,705
Bataz bestekoa	24,775	6,859	6,217	642


**1. Orrialdearen karga.** Orrialdea zenbat aldiz ikusi den adierazten duen kopurua.

**2. Bisitari bakarrak.**- cookie bakar batean oinarrituta, hau da: lehenengo aldiz egiten diren bisitak eta errepikariak edo sarritan bisitatzen dutena, denak batuta.

**3. Lehenengo aldiz egiten diren bisitak:** cookie bakar batean oinarrituta, pertsona horrek ez badu cookierik, orduan, horixe hartzan da bere lehenengo bisitatzat.

**4. Bisita errepikariak.**- cookie bakar batean oinarrituta, pertsona hori webgunera beste ordu beteko bisita baterako edo beranduago bueltatzen bada.

### 2007-2012 bitarteko eboluzio-grafikoa :



2007-2012	Orrialdearen karga. (1)	Bisitari bakarrak (2)	Lehenengo aldiz egiten diren bisitak (3)	Bisita errepikariak (4)
<b>2007</b>	264,763	48,223	43,653	4,570
<b>2008</b>	328,436	77,372	71,071	6,301
<b>2009</b>	412,616	103,408	94,739	8,669
<b>2010</b>	394.903	99.299	99.299	8.456
<b>2011</b>	315.057	85.004	77.446	7.558
<b>2012</b>	297,295	82,311	74,606	7,705
guztira	2,013,070	495,617	452,358	43,259
batazbestekoa	335,512	82,603	75,393	7,210

d) Egin diren kontsultak armen eta Eibarko industria-ondarearen gainean.

Posta elektronikoz bidez: 205

Telefono bidez: 66

Irudi-eskaerak: 45

## 2. JARDUERAK.

### a) Erakusketak eta argitalpenak. Aldi baterako erakusketak eta argitalpenak euskarri ezberdinetan.

#### 1. Argitalpenak:

##### 1.1. Gaztelerazko triptikoak berriro argitara ematea:



Neurria: 297x210  
Papera: lztukatua, matea, zuria, 180 gramokoa.  
Kopurua: 10.000. (gazteleraz).  
Enpresa: Komunikados.

**Gastu osoa: 1.031,93€**

##### 1.2. “Eibar industrialia” pasaportearen edizioa.

Neurria: 130x90, triptikoa.  
Papera: lztukatua, matea, zuria, 180 gramokoa.  
Kopurua: 400, elebidunak.  
Enpresa: Egoprint.

**Gastu osoa: 520,30€**

#### 2.- Erakusketa iraunkorra berritzea.

##### 1. Erakusketa iraunkorrean elementu berriak sartzea:

- Jaurtigaien erakusleihoa.
- Star-aren erakusleihoa. Katalogoak, argazkia eta berkalibratzailea.
- Arma-probatokia barrutik.

2. Museoan bertan bakarrik kontsultatu daitekeen liburutegi txiki bilakatu den dokumentazio-gunea hedatzea.

##### 3. Aldi baterako erakusketa.

Resort enpresaren produkzioa islatzen duen erakusleihoa 50. urte bete dituelako. 2012ko abenduan eta 2013ko urtarrilean.

b) Hezkuntza eta kultura-ekintza: Programak eta material didaktikoak garatzea, hitzaldiak/jardunaldiak, webgunea sortzea edo garatzea...

##### 1) Webgunea eguneratzea.

2012. urtean zehar Museoaren webgunea eguneratzen joan da, bideoak, argazki-galeriak eta dokumentu asko sartuta.

A. Museoaren edukiari buruzko bideo berriak sartu dira.

B. Atal berri bat sartu da: Erakusketa birtuala. Atal horretan dokumentuak, antzinako katalogoak, marrazkiak eta industria-planoak, patenteak eta abar agertzen dira. .

Dokumentu horietako batzuk Museoaren funtsaren parte dira. Beste batzuk, Eibarko familiek eta industriek utzi dituzte proiektu honetarako.

Atal honek beste 6 atal berri ditu: Dokumentuak, Antzinako katalogoak, Marrazkiak eta industria-planoak, Patenteak eta Publizitatea.

C. Gida didaktiko berriak sartu dira: “Museoa pausoz pauso” eta “Museoaren kazeta” edizio bietan: euskaraz eta gazteleraz. Aurreneko gida lehen mailako eskolaumeena da eta hurrena bigarren mailakoena. Orokorrean, familiendako eta jende guztiarendako gidak dira, nahi duenak deskargatzeko modukoak.

#### 4) Hezkuntza programa

Bisita gidatuak talde bakoitzari ezaugarriei egokitutakoak.

BISITAS			2012
GIADATUAK			
ZNBK.	DATA	TALDEA	KOPURUA
1	12/01/2012	EUSKALTEGI MUNICIPAL	8
2	12/01/2012	EUSKALTEGI MUNICIPAL	10
3	12/01/2012	EUSKALTEGI MUNICIPAL	17
4	12/01/2012	EUSKALTEGI MUNICIPAL	12
5	12/01/2012	EUSKALTEGI MUNICIPAL	11
6	26/01/2012	LANTEGI BATUAK TXIRIBILA	15
7	01/02/2012	JORNADAS DEL EMPRENDEDOR	21
8	01/02/2012	JORNADAS DEL EMPRENDEDOR	21
9	01/02/2012	JORNADAS DEL EMPRENDEDOR	21
10	01/02/2012	JORNADAS DEL EMPRENDEDOR	21
11	01/02/2012	JORNADAS DEL EMPRENDEDOR	21
12	14/02/2012	INSTITUTO BALINGER ALEMANIA	15
13	14/02/2012	INSTITUTO BALINGER ALEMANIA	15
14	18/02/2012	CLUB BURDIÑOLA	17
15	18/02/2012	CLUB BURDIÑOLA	18
16	25/02/2012	GRUPO DE AMIGOS	7
17	12/03/2012	INTERECAMBIO LUGON FRANCIA	22
18	12/03/2012	INTERECAMBIO LUGON FRANCIA	22
19	18/03/2012	JUAN ANTONIO MOGEL IKASTEXEA	23
20	18/03/2012	JUAN ANTONIO MOGEL IKASTEXEA	23
21	18/03/2012	JUAN ANTONIO MOGEL IKASTEXEA	23
22	18/03/2012	GRUPO FAMILIAR	3
23	22/03/2012	GRUPO ARAMAIO	7
24	22/03/2012	IKERLAN	18
25	23/03/2012	INTERCAMBIO ABSTADT	22
26	23/03/2012	INTERCAMBIO ABSTADT	22
27	26/03/2012	3DBH SORALUCE	20
28	21/04/2012	ASOCIACIÓN SALDIA	20
29	21/04/2012	ASOCIACIÓN SALDIA	20
30	18/05/2012	BISITA ESPECIAL ARMERO DIM	10
31	18/05/2012	BISITA ESPECIAL ARMERO DIM	12
32	18/05/2012	BISITA ESPECIAL ARMERO DIM	11
32	18/05/2012	BISITA ESPECIAL ARMERO DIM	11
33	18/05/2012	BISITA ESPECIAL ARMERO DIM	10
34	18/05/2012	BISITA ESPECIAL ARMERO DIM	11
35	18/05/2012	BISITA ESPECIAL ARMERO DIM	10



36	18/05/2012	BISITA BEREZIAARMERO DIM		10
37	25/05/2012	CEPA ISASI	8	
38	26/05/2012	AMAÑA IKASTETXEA		14
39	26/05/2012	AMAÑA IKASTETXEA		15
40	26/05/2012	FAMILIARRAK		12
41	26/05/2012	GRUPO FAMILIAR		14
		ASOCIACIÓN PROMOCIÓN DE LA MUJER DE		
42	06/06/2012	LLODIO		28
		ASOCIACIÓN PROMOCIÓN DE LA MUJER DE		
43	06/06/2012	LLODIO		27
44	07/06/2012	FUNDACIÓN PROYCTO HOMBRE		10
45	09/06/2012	GRUPO FAMILIAR		20
46	09/06/2012	GRUPO FAMILIAR		20
47	21/06/2012	AEK		7
48	21/06/2012	FEDERACIÓN DE TIRO OLIMPICO		8
49	28/06/2012	ASOCIACIÓN FIELD TARGET		15
50	06/07/2012	ILS		20
51	06/07/2012	ILS		20
52	28/07/2012	EGOGAIN GERONTOLOGICO		8
53	08/08/2012	GRUPO FAMILIAR		2
54	11/08/2012	ASOCIACIÓN DE JUBILADOS HOTEL		15
55	11/08/2012	ASOCIACIÓN DE JUBILADOS HOTEL		16
56	29/08/2012	ASOCIACIÓN DE JUBILADOS HOTEL		16
57	29/08/2012	ASOCIACIÓN DE JUBILADOS HOTEL		16
58	09/09/2012	IPA MADRID POLICE ASOCIACIÓN		15
59	09/09/2012	IPA MADRID POLICE ASOCIACIÓN		15
60	09/09/2012	IPA MADRID POLICE ASOCIACIÓN		15
61	01/10/2012	JORNADAS SOBRE TURISMO		15
62	04/10/2012	IRALE IRAKASLEAK		15
63	16/10/2012	CRUZ ROJA EMIGRACIÓN		11
64	24/11/2012	ANTIGUOA ALUMNOS ESCUELA ARMERIA		7
65	01/12/2012	GRUPO DE AMIGOS		5
66	20/12/2012	ORBEA TALDEA		14
67	20/12/2012	ORBEA TALDA		15
				1018

### Museoen Nazioarteko Eguna (2012).

Munduko museo guztiek Museoen 35. Nazioarteko eguna 2012ko maiatzaren 25ean ospatu zuten.

Armagintzaren Museoak ere, 2007an inauguratu zen urtetik hasita urtero egin duen moduan, maiatzaren 18an ospatu zuen Museoen Nazioarteko Eguna.

2012. urtean, Nazioarteko Museoen Eguna “Museoak mundu aldakorrean. Erronka berriak, argialdi berriak.”

Museoen Nazioarteko Egunari esker, bisitariak, hedabide berriak etengabe sortzen ari diren gizarte berri honetan museoek duten egitekoen inguruko galderak egin ditzakete; museoak, garapen iraunkorraren ildotik, etorkizunari begira nola ari diren ikus dezakete.

Armagintzaren museoak bat egin zuen egun horrekin eta bere funtsen eta bildumaren inguruan jarduera bat garatu zuen.

Jarduera horri MUSEOAREN ARIMA izena eman zitzaien eta normalean jendeak ikusteko aukerarik izaten ez duen museoaren txoko ezkutu edo gordeleku batzuk eman zuten ezagutzera; ezusteko bisita gidatu bat: Museoaren biltegiak bisitatu ziren eta pieza zaharberritu berriak ikusi. MUSEOAREN ARIMA jarduerak, publikoak normalean ikusi ezin dituen lekuak edo txokoak ezagutzera ematea du helburu.

Jarduera hori museoaren bildumak ezagutu nahi dituzten bisitari guztiei zuzendutakoa da.

**EDUKIA:** Ezusteko bisita gidatu bat egiteko gonbita egiten zaie bertaratutakoei. Museoaren biltegiak bisitatzera eta pieza zaharberritu berriak ikustera.

**LEKUA:** Armagintzaren Museoa.

**EGUNA:** Abenduaren 4a, museoaren ohiko ordutegian.

**SARRERA.** Doakoa jende guztiarentzat.

#### METODOLOGÍA:

Ordu erdiro taldetxo bat osatzen da; gehienez, 6-8 pertsonakoa.

Elkargunea: Museoaren harrera-lekua.

Harrera-lekuan dagoen pertsonak egiten ditu taldeak bisitariak heldu ahala.

Pertsona bakoitzari fitxa bat ematen zaio eta bigarren pisuan batzeko esaten zaie, erakusketa-gelaren atean. Handik, gidari batek, taldea Armategira eramango du.



Izen-ematea egun horretan bertan egin zen Museoan. Ostiralean, maiak 18, Museoa zabaltzeko ohiko ordutegian. Bisitak ordu erdiro egiten ziren, gehienez ere 8 pertsona zituzten taldeetan. Taldeak, bisitariak etorri ahala osatzen ziren.

Jarduerak arrakasta handia izan zuen, horretarako zeuden lekuen ehuneko 85a bete baitzen. Bertan, euskal lurraldeetako bisitatiek hartu zuten parte; gehienak eibartarrak, jarduerarekiko interes handia erakutsi zutenak.



Maiatzaren 18an, Museoen Nazioarteko Egunean, sarrera doakoa izan zen jende guztiarentzat.

#### Abenduak 4. Santa Barbara. Armaginen zaindaria.

Armagintzaren museoak bat egin zuen egun horrekin eta bere funtsen eta bildumaren inguruan jarduera bat garatu zuen. Oraingo honetan, jendeak normalean ikusten ez dituen museoaren txokoetara bisita gidatu bereziak egin ziren. Bisita horri MUSEOAREN ARIMA izena eman zaio.

Museoen Nazioarteko Egunean arrakasta handikoa izan zen.

Abenduaren 4an, Santa Barbara egunean, museoaren sarrera doakoa izan zen.

Bisitari kopuru osoa	emakume	gizonak	umeak
102	42	55	5

#### 3. "Eibar Industrial: Teknologia. Iragana, egungoa eta etorkizuna. Teknologia: Iragana, egungoa eta etorkizuna.

Azaroaren 22an eta 24an jardunaldi batzuk ospatu ziren, Eibarko hiriak iraganean eta gaur egun duen industria-errealitateari buruz eta etorkizunean izan dezakeenari buruz jarduteko. Armeria Eskolak, IK4-Tekniker ikerketa-zentroak eta Eibarko Udalak, Armagintzaren Museoarekin batera, ondoko programazio edo egitarau hau egin zuten denen ahalegina batuta:

##### **Egitaraua.**

azaroaren 21, 22 eta 23an.

Ateak zabalik eduki ziren Armagintzaren Museoan (ohiko ordutegian)

Egun horietan, museora joan ziren bisitariak, editatutako pasaportea jasotzea eskatu zuten, pasaportea derrigorrezkoa baitzen autobusean lekua gordetzeko eta Erisonon dagoen IK4-Teknikerren instalazio berrietara bisita gidatua egiteko.

Azaroaren 24a.

Ate irekien eguna IK4-Teknikerren.

Bisita gidatuak IK4-Teknikerren instalazio berrietara.

"Eibar Industrial, Teknologia: **iragana, oraina eta etorkizuna**. Armeria Eskolak antolatua.

Erisonora joateko 55 tokiko autobus bat alokatu zen. 6 joan-etorri egin zituen.

332 pertsonak hartu zuten parte, eta pertsona horiek ekitaldi guztietan hartu zuten parte.

C) Dokumentazioa.

### c) Dokumentazioa: Funtsak inbentariatu, katalogatu eta digitalizatu EMSIME sisteman.

- 1) Eibarko Armagintzaren Museoko funtsak erregistratzea, inbentariatzea, katalogatzea eta informatizatzea: IV. Fasea 2012. URTEA.

#### Sarrera.

Burutu dugun lanaren helburua Armagintzaren Museoaren funtsak erregistratzen, inbentariatzen eta katalogatzen segitzea izan da. Baita katalogo hori informatizatzen ere, horretarako, Eusko Jaurlaritzak, Funtsak erregistratzeko, inbentariatzeko eta katalogatzeko duen programa bat aplikatuta.

2012ko otsailean, kontratatzailea (Eibarko udala) eta kontratatutako enpresa (Ondartez SL) bilduta, IV. Fasea nola gauzatu behar zen zehaztu zen, Armagintzaren Museoaren funtsen erregistroa, inbentarioa eta katalogazioa eguneratzeko eta hori digitalizatzeko.

2012ko martxoaren 1ean eman zitzaion hasiera IV. faseari edo lanaldiari, Armagintzaren Museoaren funtsen erregistroa, inbentarioa eta katalogazioa eguneratzeko eta informatizatzeko lanari dagokiona, Ondartez SL etxeko lantaldeari adostutako egitekoak burutzeko beharrezkoak zituen material guztiak emanda.

Lanaren egoera:

Aurreko lanaldi edo faseetako erregistro-prozesuak ondokoak hartu zituen bere baitan:

1. Alfa funtsetik zetorren **Star bildumako** armen erregistroaren informatizazioa.
2. Eibarko Armagintzaren Museoan dauden fitxak informatizatzea, **Armeria Eskolako** Funtsaren elementuei dagozkienak.
3. Eibarko Armeria Eskolako **Damaskinatugintza Eskolako** piezak katalogatzea eta inbentariatzea.
4. Eibarko udalak erositako piezak inbentariatzea eta katalogatzea.
5. Museoari lagatako deposituen katalogazioari buruzko erregistro informatikoa.
6. Armagintzaren Museoaren **biltegian** gordetako piezen eta dokumentu-funtsen erregistroa.
7. Biltegian gordetako dokumentu-funtsak berrantolatzea.
8. "Armategian" gordeta dauden piezak erregistratzea.
9. "Armategian" gordetako dokumentazioa katalogatzea. Gaur egun, hori dena Museoan dago gordeta gainerako dokumentu-funtsekin batera.

Lanari ekiterakoan ez zegoenez Eusko Jaurlaritzak museotako funtsak kudeatzeko egin duen Emsime aplikazioa, bildumaren informatizazioa, hasierako lanaldi edo fase

haietan, Acces programarekin egin zen, horretarako propio sortutako taula batzuekin. Gero, hitzarmena 2011ko maiatzaren izenpetu ondoren, aurreko fase guztietan egindako datu-base osoa programa berrira irauli zen. 2012. urtetik aurrera aplikazio egokiarekin egin zen lana eta behar bezala iraulita ez zeuden eremu guztiak zuzendu egin ziren.

Museoan bertan aurkitzen diren Armagintzaren Museoaren funtsen erregistro-, inbentario- eta katalogazio-lana amaitu ondoren, argazkirik ez zuten elementuei argazkiak atera zitzaizkien, zehazkiago jasotzeko eta erregistroa egiten ari zen egun edo data hartan zuten kontserbazio-egoera zein zen ikusteko.

Eibarko Armagintzaren Museoan lanean ari ziren bitartean, Lantaldeak "Armategi"ra ere joan behar izan zuen han zeuden piezak erregistratzera. Lan hori burutu ahal izateko lantaldeak hainbat egiteko gauzatu behar izan zituen:

1. Piezak berrantolatu egin zituen, biltzeko leku berri bat zabaldu delako: **"Artxiboa"**.
2. Dagoeneko inbentarioan jasotako elementuak Artxibora eraman ziren katalogazioa osatu ondoren. Armategian kaxetan sartuta zeuden piezak antolatu eta birkokatu egin ziren.
3. Apalak garbitu ondoren, pieza luze bakoitza bere lekuan jarri zen. Gauzak errazago bilatzeko, leku edo toki bakoitzari zenbaki bat ipini zaio.
4. Dokumentazio-kaxa batzuk eraman ziren Armategitik Museora katalogatu ahal izateko.

Lan hori 2012ko uztailaren 31n amaitu zen. Guztira, 6450 elementu izan dira erregistratu eta informatizatu direnak. Zehazkiago: 6450 elementu horietatik, 3544 objektuak edo gauzak dira, eta gainerako 2096ak, dokumentuak. Ostera, erregistroa amaitu ondoren, Eibarko Armagintzaren Museoaren funts batzuk inbentariatzen jarraitu beharra ikusi da, oraindik erregistratzeke daudelako.

<b>OBJEKTUAK</b>	<b>2096</b>
<b>DOKUMENTU FUNTSAK.</b>	<b>3544</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>6450</b>

Armagintzaren Museoaren funtsen erregistroa, inbentarioa, katalogazioa eta informatizazioa lanaren azken fase hori ekin zenetik, 2012ko martxoan, Ondartez SL etxeko lantaldea –profesional bik osatua- Eibarrera astean egun bitan etorri da, 16 ordu inguru sartuta; beraz, guztira 400 ordu sartu dituzte.

Gastua: 14.750.

#### d) Kontserbazio- eta zaharberritze-lanak.

**“El Casco” tailerrekoak ziren fitxatzeko erloju pareak zaharberritu.** XIX. amaiera aldekoak edo XX. mende hasierakoak dira eta Eibarko Armagintzaren Museoari donatu zaizkio. Erloju horiek langile bakoitzak tailerrera sartzera eta irteerara fitxatzekoak ziren. Ziur aski, erlojuok Ingalaterran egindakoak izango dira, El Casco tailerrak Bilboko Itsas Komandantzia erositakoak.

Erloju horiek bi zati berezitu dituzte: alde batetik, haritez egindako kaxa; bestetik, barruko aldean, erlojuaren makineria eta inprimatzekoa paper-arrabolarekin.

Proposatutako zaharberritze-tratamenduak:

- Pieza mugikorrek desmuntatzea
- Egurra dekapatzea eta garbitzea, barrutik eta kanpotik.
- Piezetako batek dituen handitu moduko batzuei lekeda edo kola ematea.
- Erlojuaren makinariaren zati diren pieza batzuk garbitzea (pendulua, esfera, kanpoko pieza zirkularra –numeruduna-). Makinaria erlojugile batek aztertuko du.
- Kristalak eta burdineria garbitzea.
- Metalezko piezei uherraren kontrako tratamendua eta azala babestekoa ematea.
- Bernizatu goma-lakarekin.
- Akabera argizariarekin eta piezak muntatzea.

**“Laster” marrazteko mahaiaren gainaldea zaharberritzea.** Eibarko enpresa horrek bulegoetarako altzariak eta marrazketa teknikorako materiala fabrikatzen du 60 hamarkadaz geroztik.

- \* Ganean duen film itsaskorra garbitu.
- \* Egurra dekapatu eta garbitu.
- \* Bernizatu goma-lakarekin.
- \* Akabera argizariarekin.

**ALFA markako josteko makina bi zaharberritzea.** Eibarko enpresa horrek josteko makinak egin zituen hainbat urtetan. Josteko makinok modelo ezberdinekoak eta sasoi diferenteetakoak dira. Hala ere, ez dugu datu larregirik.

- \* Ohola desintsektatu egingo da anoxia bidez.
- \* Solte dagoen txapari kola emango zaio.
- \* Egurra dekapatu eta garbitu egingo da.
- \* Ertzean, txapa-txertoak eta moldura-txertoak sartuko zaizkio.
- \* Sitsak egindako zuloak tapatu egingo dira.
- \* Bernizatu goma-lakarekin eta amaitzeko, argizaria eman.
- \* Metalezko hankak garbitu eta uharra kendu.
- \* Uharraren kontrako tratamendua eta argizaria eman.
- \* Makinan solte dagoen polikromia finkatu eta polikromia garbitu.
- \* Uharra egonkortzeko tratamendua eman bitarteetan.
- \* Akabera babeslea eman.

**Triun-Dex markako fitxategi-artxibategia zaharberritzea (1935 ingurukoa).**

**Bizikletak zaharberritzea:**

- \* Ciclos Cil markakoa.
- \* GAC bizikleta, Miner modeloa.
- \* Orbea markako karreretako bizikleta.
- \* GAC markako bizikleta bi, Mobylette modelokoak.
- \* Esekigailu oinduna, pago-egurrezkoa.

**Alfa josteko makina gordetzeko egurrezko kaxa zaharberritzea.**

Pieza horiek Eibarko Armagintzaren Museoak dituen funtsetakoak dira.

## e) Funtzen kudeaketa.

### Dohaintza edo gordailu legez onartutako piezak.

- **Dohaintzak.**
  - HASA itsulapikoa. Hijos de Artamendi SAK egindako diru-kutxa txikia.
  - Konpas-kaxa, Laster 5300 marka.
  - Fitxategi metalikoa, Triunfo Dex (1935ekoa).
  - Kanoia.
  - Trikotamakina.
  - 12 arma, tiro olinpikokoak.
  - Jaurtigai-bilduma erakuslehoan.
  - Star 22 kalibrearen berregituratzailea.
  - Star katalogoak –modelo ezberdinak.
- **Gordailuak.**
  - Gordailu berriak.
    - Liburutegirako armairu-liburutegia, Laster markakoa, Jon Santacolomak 2003an diseinatutakoa.

### Pieza-mailegatzeak beste batzuei:

Rosa Gisasola. Erakuslehorako.

Indalecio Prietori buruz egindako erakusketarako.

Txakurren Feria.

Armeria Eskola: Eskuadra Zaharra Museoa erakusketa iraunkorrerako.

## f) Publizitatea eta propaganda.

Eibarko industria eta Armagintzaren Museoa France 3 telebistarako egindako erreportajearen protagonista.

Urtarrilean, France 3 telebista-kateko Midi-Pyrénées lurralde-sekzioak editatzen duen dokumental izaerako « Le magazin des Pyrénées » programaren errealizatzailea, Maryxe Bergonzat, Eibarren egon zen lau egunez herriaren inguruko eta bertako industriari buruzko erreportaje bat egiteko. Erreportajerako jasotako materialaren helburu nagusia armagintzaren bilakabidea azpimarratzea zen, beste industria-mota batzuetara egin duen eraldaketa hori jasotzea. Erreportariak Armagintzaren Museoa hartu duen oinarritzko erreferentziatzat Eibarko industriaren bilakabideari buruzko diskurtsoa egituratzeko. Horretarako, hainbat grabazio egin zituen, Museoa bertan eta hiriko beste hainbat lekutan, industriak ere bisitatuta: Alfa-arte. Aya, Pedro Arrizabalaga, Boj, El Casco, ...

Bildu zuen material guztia aztertu eta editatu ondoren, telebista-kateak programa bi egitea erabaki zuen jasotako materialak interes handia zuelako.

Programa honek egin dituen beste erreportaje batzuk hauek dira:

L'odyssée du Flocon à la vague - Les gares de Perpignan - Les saumons et les hommes - Le Shaper, le Snowmaker et le Dameur - Le Graal de Montségur et Paroles d'Artouste - Julian Gayarre-Ténor Navarrais - La relève de Gavarnie - Jean-Christian Tassy - Le couteau Pallarès - Les chasseurs de biche - Les Pirates de Collioure - Méthode bordelaise dans la Rioja - Le Val d'Azun d'eldorado – Paintball à Saint Giron - Un maïs nommé désir - Des châteaux en Espagne - Lignes et Pylônes - Les Chasseurs de biches - François Ravier, Sculpteur - Les fécos de Limoux - Le médecin du maquis.



#### Prensa txostena

El Correo 2012-01-13 (laburra).  
Diario de noticias 2012-01-15 (laburra).  
Diario de noticias 2012-01-22 (orrialdea).  
Eta kitto!

#### Armagintzaren Museoa. San Telmo.

San Telmo Museoa ondarearen erakusleioa da eta bere gai asko eta asko beste museo batzuekin lotzen ditu. Testuinguru horretan, *Museoen Museo* da Gipuzkoako museoen arteko elkarlana eta topagunea bideratzen duen programa. Horren ondorioz, Gipuzkoako museoek San Telmo Museoan presentzia etengabea izan dezaten, sustapen ekintza bat jarri du martxan. Horri esker, hara doan bisitariari lurralde honetako beste leku batzuk ezagutaraziko dizkiote, museo hartan erakusten diren gaiak sakontzen dituzten lekuak alegia.

Armagintzaren Museoak parte hartu du Gipuzkoako Museoak sustatzeko ekimen horretan eta material hauek bidali dizkigute:

##### 1. Sustapeneko materiala.

#### Udaberriko irrati-kanpaina.

Propaganda berria editatzea, Radio Euskadi eta Euskadi Irratirako (20 segunduko iraupena). Grabazio-estudioa, lokuzioa (2-3 esatari), musika, lizentzia, edizioa, masterra egitea eta mp3an bidaltzea.

Estaldura: Euskadi: Dipuzkoa - Bizkaia - Araba – Nafarroa (barne).

Hedabideak: Radio Euskadi OM-FM (R.E) Euskadi Irratia OM-FM (E.I)

Propaganda: 20 segunduko iraupena (irradi bietan).

Propagandaren emisioa: Entzule-kopuru handieneko orduetan (goizez, eguerdian eta arratsaldean). Aldia: Bezeroaren premien arabera.

Kontratututako iragarki-kopurua: 30 iragarki labur: 15 Radio Euskadin eta 15 Euskadi Irratian.

Zenbateko osoa: 1687,32

#### Bilboko Herri Irratiaren irrati-kanpaina.

20 segunduko 14 iragarki, 7 partida bakoitzeko. Eibarren, azaroaren 1ean jokatu zen Eibar-Aletic Bilbao. , Bilbon, abenduaren 12an jokatu zena Athletic Bilbao-Eibar.

Zenbateko osoa: 484€

#### Hoteletan egindako kanpaina, Infocard.

Hoteletan lagatzeko txartelak editatu eta banatu.

#### Nego bide.

Azaroaren 15ean, EIBARren, Udalaren eta Garapen Agentziaren laguntzarekin antolatu zen NegoBide (Círculo Empresarial Negocios y Valores) sarearen topaketa hartan, negozioa gaitzat hartuta eta negozioak aurrera ateratzeko laguntza zehatzak ezagutzeko modu berriak bilatzeko egin ziren jardunaldietako parte-hartzaileei, 40 gonbidapen eman zitzaizkien.



## gI Segurtasuneko instalazioak mantentzea.

2012. urtean, segurtasunarekin eta zaintzarekin lotutako jarduera bi burutu dira.

Lehena:

Museoan jarritako bideo-zaintza sistema aztertu ondoren, akats hauek ikusi ziren:

1. Bideo-grabazioaren ekipoa gainbegiratzen duen monitorea ez dabil elikaduran duen akats batengatik. Konpontzea baino merkeagoa ateratzen da beste berri bat jartzea.
2. Bideo-grabatzailea badabil baina 1go. sarrera kaltetua dauka; disko gogorraren sektore batzuk akatsak dituzte eta premia dagoen une batean grabatutako informazioa gal daiteke; SVGA edo bideo-grafikoen supermatrizearen irteera ere ez dabil zuzen eta horrek ezindu egiten du monitorea SVGA estandar batekin ordeztzea. Arazo horiek ez dituen oraingo ekipo batekin ordeztzea gomendatzen da; udaltzaingoak erabiltzen duen lan-esparru berbera izango duena. Ordezkapen horrek udaltzaingoaren lana erraztuko luke premia egonez gero ekipoa manipulatu beharra egongo balitz. Eta horrez gain, aurreko ekipo horretan ez bezala, PCrako prestatutako SVGA estandar bat erabil daiteke gainbegiratze-monitore legez. Monitore horiek askoz merkeagoak dira.
3. 1etik 10era bitarteko kamera guztiak zerbitzutik kanpo daude. Salbuespen bakarra 3. kamera da, elikadura arazoak dituena. Gainerako kamerak ez dute irudi-seinalerik ematen. Horien elikadura-iturria ere kaltetuta dago.
4. 11. kameratik 16. kamera bitarteko guztiak zuzen dabilta baina irudian parasitoak erakusten dituzte. Parasito horiek kameraren elikadura-iturriaren funtzionamendu txarraren ondorio dira. Kamera horien elikadura-iturria ordeztu egin behar da parasito horiek ezabatu ahal izateko. Ostantzean, kamera horiek egoera ezin hobean daude.
5. Instalazioan bilatu diren akatsak ikusi ondoren, aurretik deskribatu diren elementu horiek kaltetu dituen imantatu atmosferiko baten ondorio zirela ikusi zen. Horrelakorik ez gertatzeko, ahal dela behintzat, sistemaren elikadura-iturriak modu egokian isolatzea komeniko litzateke.

Horregatik COLOSO 16CH 5000GB, 9 MINIDOMO VANDAL bideo-grabatzaile berri bat jarri da IR 20 M STANDARD-arekin, LCD PHILLIPS monitorea batekin (19"koa) eta sistema konexioatuta.

Jarri duen enpresa: AYC

Zenbatekoa: 4.829 €

Bigarrena: Guardia Zibilak eskatuta, balantze magnetiko erako detektagailu berri bi ipini dira armategiaren sarrerako ate bietan, lehendik zeuden detektagailu bolumetrikoen osagarri.

Jarri duen enpresa: AYC.

Gastua: 218,53 euro.

[Konponketak.](#)

Museoaren proiektzio-aretoako proiektagailua konpondu da.

Gastua: 187,74 euro

**i) Diru-sarreraren eta gastuen balantzea.**

**GASTUAK:**

OINARRIZKO ORDAINKETAK.

**9275,42**

BESTE OSAGARRI BATZUK.

**19179,58**

GIZARTE SEGURANTZA

**6954,72**

ELKARKIDETZAREN KUOTAK

**703,44**

BESTALAKOAK.

**3386,6**

Bisita teknikoa eta bisitari-kontrolerako zentroaren programak eguneratzea.	826
TV-ren monitorea konpontzea.	81,42
Ikus-entzunezkoak berriro programatzea.	1728,7
Bisita teknikoa eta ikus-entzunezkoak konpontzea.	750,48

**8357,8**

#### **ARRUNTA, INBENTARIAEZINA.**

Armategiaren kontaktu magnetiko berria.	
Metakrilatozko kutxatila.	315,31
erakusketak muntatzea eta erakusketa-materiala ipintzea.	132,16
Proiektorea konpontzea.	187,74
Triptikoak editatzea.	1.031,93
Hosting 2012 Korpo Web Zope.	366
Disko gogorra konpontzea eta berrezartzea.	1537
20 pila, kargatzekoak.	82
Museoa zaintzeko sistema berriztatzea.	4.828,76
Web orrialdea hobetzea.	690,30

#### **PUBLICACIONES, PUBLICIDAD Y PROPAGANDA.**

**7.668**

Bisita gidatuak.	3.285
Bisita gidatuak.	365
Irratiko iragarkiak	177
Publizitatea. Euskadi Irratia – Radio Euskadi.	1362
Herri Irratiko publizitatea.	484
Informazio-txartelak editatzea eta hoteletan banatzea.	1475
“Eibar industrial” pasaporteak editatzea.	520

#### **KANPOKO KONTRATU BEREZIAK.**

**9021,75**

Bizikleta batzuk eta hainbat objektu edo gauza zaharberritzea.	3.477,54
Josteko makinaren estalkia.	312,18
Josteko makina bi zaharberritzea.	4034,42
Bisita gidatuak eta Santa Barbara eguneko jardunak.	1197,61

#### **KANPOKO BESTE LAN BATZUK.**

**34250 €**

Harrera-lekua: ASTIXA.	19.500€
Katalogazioa eta inbentarioa: ONDARTEZ.	14.750

#### **GASTU GUZTIAK.**

**98797,31**

#### **DIRU-SARRERAK.**

#### **2012ko KAXA DIRUBILKETA**

	sarrerak	Liburuak	denda	guztira	
urtarrila	116	3	21	140	
otsaila	207	30	8	245	
martxoa	213,5	40	9	262,5	

apirila	166,5	75	2	243,5
maiatza	151,1	9	1	161,1
ekaina	352,5	18	6	376,5
uztaila	201	33	4	238
abuztua	76,5	10	2	88,5
iraila	153,5		20	173,5
urria	170	3	12	185
azaroa	157,5	30	28	215,5
abendua	132	40	8	180
<b>guztira</b>	<b>2097,1</b>	<b>291</b>	<b>121</b>	<b>2509,1</b>

### Beste urteko dirubilketa

	sarrerak	liburuak	denda	guztira
<b>2012</b>	2097,1	291	121	<b>2509,1</b>
<b>2011</b>	2452,5	880	206	<b>3538,5</b>
<b>2010</b>	3037,5	461	230	<b>3728,5</b>
<b>2009</b>	1693,25	838,6	207	<b>2946,35</b>
<b>2008</b>	1873	733	276	<b>3104</b>

### Subvenciones recibidas

Kultura	Gipuzkoako foru aldundia	Fondoen dokumentazioa eta berriztapen lanak	11.313€
Kultura	Gipuzkoako foru aldundia	Hedapen egitaraua	2.500€
Kultura, gazteria eta kirolak	Eusko Jaurlaritza	Fondoen dokumentazioa	6932,20€
Kultura, gazteria eta kirolak	Eusko Jaurlaritza	Edukazio egitaraua	1680,00€
<b>GUZTIRA</b>			<b>22.425 €</b>

### Diru-sarreraren eta gastuen balantzea.

<b>GASTU OSOA</b>	<b>98797,31€</b>
<b>SARRETA OSOA</b>	24934,3
<b>DESBERDINTASUNA</b>	<b>73.863,01</b>